



FUNTSEZKO ELKARTEAK

1. Zer dira funtsezko elkarteak?

Funtsezko elkarteak, nongozioen funtzionamendua hobetzeko eta lehiakortasuna indartzeko sortzen diren aliantza estrategikoak dira. Honekin enpresa baten proiektuak arrakasta handiagoa izateko aukera izango du. Funtsezko elkarteak ezinbestekoak dira produktuak errezago eta merkeago lortzeko, bestela enpresa bat bere kabuz lan egin nahiko balu gastu asko izango lituzke, gainera riesgoak murritzten dituzte proiektu berriak arrisku ekonomiko asko izan daitezkelako, baina elkarteek harrisko horiek sahiestea lortzen dute, eta beste erakunde batzuekin kolaboratzeak ideia berriak, berrikuntza teknologikoa edo ikuspegi desberdinak ekarri ditzake.

Gure fisioterapia enpresaren testuinguruan, funtsezko elkarteek paper erabakigarria betetzen dute estrategia orokorra egiteko, eta helburu zehatzak lortzeko. Masajeetan eta lesioen prebentzioan espezializatzen gara, ezinbestekoa da harreman oank eukitzea sektorean eragina duten eragile nagusiekin. Honek gure zerbitzuen kalitatea hobetzen, bezero berriak erakartzen eta gure enpresaren arrakasta handitzen lagunduko digu.

2. Funtsezko elkarten identifikazioa

- Gure hornitzaileak 3 taldeetan banatzen dira: lehenengo, produktuak, hau da masaje-olioa eta kremak. Bigarren ekipamendu teknikoak, hauek masaje-mailak, elektroterapia-gailuak eta muskulu-laguntzarako teknologiak dira. Hirugarrena baliabide osagarriak, bendajeak eta kinesiologia-zintak dira.
- Gure zerbitzuak merkatura eramaten eta bezero gehiagorengana iristeko laguntza ematen digutenak, Kirol-klubak eta sare sozialak dira. Kirol-klubak bere jokalariei gure enpresa gomendatzen diote eta guk klub horretan dauden kirolariei eragozpen txiki bat egiten diegu, horrela pizka bat gutxiago irabazten dugu, baina bezero askoz gehiago izaten ditugu. Beste alde batetik sare sozialetan (Instagram eta TikTok) ere iragarkiak eta bideoak publikatzen ditugu, horrela gendea ikusi dezake gure proiektua eta animatu daitezke etortzera.
- Gure kolabratzaile espezializatuak, marketineko kolaboratzaileak dira. Online zerbitzuak hobetzem laguntzen digute. Iragarkiak eta bideoak editatzen dizkigute gendeari arreta deitzeko.



3. Rolak eta ekarpenak

1. Hornitzaileak

Rola:

- Zerbitzuen funtzionamendurako beharrezko lehengaiak eta ekipamenduak hornitzen dituzte, eta gure masaje eta fisioterapia zerbitzuak etengabe eskaintzea bermatzen dute.

Erakarpena:

- Kalitatea ematen digute. Masaje-olioa, kremak eta gailu teknologikoak eskuratzea, gure bezeroei zerbitzu efikaziago eta profesional bat eskaintzea lortzen dute.
- Hornikuntza etengabea garantizatzen digute, ekoizpen-prozesua etengabe funtzionatzeko eta bezeroen zerbitzuak puntualki eskaintzeko aukera ematen digute.

2. Kolaboratzaile espezializatuak

Rola:

- Gure diseinu, marketin edo teknologia espezializatuak gure enpresaren posizionamenduarekin merkatuan laguntzen digute, hau da zerbitzuak hobetzen dizkigute beste enpresekin lehia dugunean hobeto posizionatuta egoteko.

Erakarpena:

- Gure enpresa profesionalagoa eta erakargarriagoa egiten dute, bezeroen konfiantza irabazteko.
- Gure zerbitzuak sare sozialetan ikusgarriago egiten dituzte, bezero gehiago erakartzeko.
- Hitz ordua eskatzen dutenean, online plataforma batean apuntatzen dute bezeroak antolatuak eukitzeko.

3. Banaketa-aliatuak

Rola:

- Gure enpresari ikusgarritasuna ematen diote, enpresa bezeroei iristea modu errezago batean laguntzen du.



Erakarpena:

- Bezeroak erakartzen dizkigute, Kirol-klubak, gimnasioak edo osasun-erakundeak gure enpresa gomendatzen dutenean, bezero gehiago erakartzen dituzte.
- Geroz eta bezero gehiago ekartzen badute, enpresa handitzen joango da. Orduan, enpresare hazkundearekin laguntzen digute.

4. Garrantziaren arabera lehenestea

1.- Hornitzaileak

Gure lehengai edo ekipamenduaren hornikuntza gabe, gure zerbitzuak ezin izango ziren ondo egin, eta horrek eragina izango zuen gure bezeroengan.

2.- Banaketa-aliatuak

Banaketa-aliatuek gure zerbitzuak merkatura eramaten laguntzen dute. Gure bezeroak handitzeko eta gure zerbitzuen ikusgarritasuna handitzeko ezinbestekoak dira. Gure enpresaren helburu nagusietako bat bezero gehiago izatea denez, haien eragina garrantzitsua da.

3.- Kolaboratzaile espezializatuak

Kolaboratzaile espezializatuak lehiakortasun-abantailak ematen dituzte, zerbitzuaren kalitatea eta berrikuntza handituz. Haien eragina ez da berehalakoa, baina epe ertain edo luzera gure enpresaren posizionamendua hobetzen dute.

5. Ondorioa

Gure fisioterapia enpresaren arrakasta aliantza estrategiko sendoen eraikuntzan eta enpresa mantentzean oinarritzen da. Funtsezko eragileak kudeatzen ditugu, hornitzaile fidagarrien, banaketa-aliatu eraginkorren, kolaboratzaile espezializatuen eta finantza-bazkideen bidez gure zerbitzuaren kalitatea eta berrikuntzak dituzte. Harreman sendoak eta helburu partekatuak lankidetzaren arrakastatsuen oinarria dira.